

Landartean

Balizko Paisaiak

1. Modulua:

Ingurune naturalaz hausnar

2025-eko irailaren 18-tik azaroaren 28-ra



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



Landartean | 1. Modulua: Ingurune naturalaz hausnar

irailak 18 – azaroak 28 / 2025

Datak: irailak 18– azaroak 28

Asteko egunak: ostegun arratsaldeak / ostiralak egun osoan zehar

Irakastordua: 14 ECTS - Mikrokredentziala UPV/EHU

Modalidad: Aurrez-aurrekoa, AGET Donostia, UPV/EHU

Hizkuntza: Gaztelera / Euskara

Prezioa: 560 €

Ikastaro hau, *Landartean | Balizko Paisaiak* ikastaroaren aurreneko atala da. Lau moduluko segida gisa osatu da; pixkanaka gaiari buruzko ikuspegi desberdinak jaso asmoz, natura ulertuz eta harekin lan egiteko beharrean sakonduz.

Mod 1: Ingurune naturalaz hausnar

Hiri eta aldirien ingurunea birnaturalizatzeko esku hartze irizpideak eskuratzea du helburu, ikuspegi ekologiko batetik. Moduluak arborikultura eta landaketa naturalistak hartzen ditu aztergai, eta hiriko berdeguneen elikadura-ekoizpeneko gaitasunean zentratzen du bere interesa. Prestakuntza teoriko-praktikoa da, eta ariketak eta landa-lanak Donostialdean egingo dira, Donostiako Udaleko Parke eta Lorategien Sailarekin lankidetzan.

Testuingurua

Prestakuntza-ziklo hau *Donostiako Udaleko Parke eta Lorategien* arloaren behar zehatz baten harira sortu da, ekologia- eta paisaia-sentsibiltatea duten profesionalen prestakuntza eza hauteman baita hiri-birnaturalizazioaren praktikarako.

Ziklo honen helburua da prestakuntza-defizita osatu eta hiriko berdeguneen esku-hartzean eta birnaturalizazioan parte hartzen duten profil profesionaleri ezagutza aplikatua eskaintzea.

Donostiako Udalarekin izango den lankidetzari esker, ikastaroaren landa-lana hiriko berdeguneetan egingo da; gainera Udalak abiarazi eta ezarri nahi dituen proiektu pilotuetan parte hartzeko aukera izango da, bai eta hiri-parkeen eta lorategien kudeaketa eta mantentze-lan dinamikak ezagutu ere.

5 arrazoi titulu hau hautatzeko

- Hiri-birnaturalizazioko esku-hartzei buruzko ezagutza zabaltzea eta garatzea, etorkizunean proiektio handia izango duen lan-eremuan
- Gaiari buruzko ezagutza teorikoa, praktikoa eta aplikatua eskuratzea
- Zuhaitz eta landaketa naturalei buruzko oinarritzko printzipioak ikastea
- Berdeguneen kudeaketaren eta mantentzearen problematikara hurbiltzea
- Hiri-birnaturalizazioan esperientzia duten teknikari espezialistekin harremanetan jartzea



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



Landartean / Balizko Paisaiak

Prestakuntza akademiko honen helburua, ingurune eraikiaren eta espazio natural-eraldatuen ekologiari buruzko sentsibiltatea piztea da. Hiri espazio antropizatuari buruzko diseinu- eta plangintza-irizpideak eskuratzeko topaketa gisa proposatu da, materia bizia eta bera eusten duen ekosistemari dagokion guztian arreta jarritz.

Xede horri heltzeko, diziplinarteko jakintzak elkarlanean jarri dira –biologikoak, filosofikoak, sozialak, artistikoak, urbanistikoak, arkitektonikoak eta paisajistikoak– pentsamendu kritikoa sustatzeko helburuarekin.

Ekosistema desberdinekin eta inguru urbanoetako prozesu naturalekin aritzeko teknikak landuko dira, eztabaida eta lankidetzaz sustatuz. Espazio, lurralde eta hiri-paisaien diseinu espekulatiboa garatuko da, ikuspegi ekosistemikotik.

Ikastaroan jasotako teoria aplikagarria izango da; horretarako, euskal lurraldea hartuko da aztergai. Ikastaroaren alde praktikoa materia bizia landu, zaindu eta kudeatzeko oinarritzko ezagutzak eskuratzera bideratuko da, funtsezko jotzen baita eskuratutako ezagutza lurrarekiko harreman zuzen eta somatikora eramatea.

Modulutan antolatutako ikastaroa

Lau moduluek ezagutza teoriko-praktikoa osatu asmo dute, hiri-inguruneak sentikortasun ekologiko baten baitan birnaturalizatzeko moduei buruzkoa, landare-prozesuak eta -habitatak errespetatuz.

Lau moduluko segida gisa osatu da; pixkanaka gaiari buruzko ikuspegi desberdinak jaso asmoz, natura ulertuz eta harekin lan egiteko beharreak sakonduz. Datozen moduluetan teknika, pentsamendu- eta kultura-ekologikoa, eta proiektua landuko dira.

Ikasleen profil desberdinei eta haien denbora erabilgarritasunari egokitu asmoz, mikrokredentzial prestakuntza programak gehituz ikasleek maila handiagoko titulazioak lortu ahalko dituzte. Hainbat moduluen gainditzeak, titulazio unibertsitarioetarako sarbidea ahalbidetuko du (informazio gehiago eskuratu ahalko da).



Programa

Data		Edukiak
Iraila	18	Ikastaroaren ongi etorria eta hasiera Ikastaroan landuko den marko kontzeptualaren azalpena.
	19	Amaia Torres Piñeiro Zuhaitzak marrartzuko ditugu haien egitura eta funtzionamendua ulertzen dugun bitartean, eta landare-inguruneari buruzko begirada finduko dugu.
	25	Asier Gogortza Argazkiaren bidez ingurune naturala begiratzeko moduak aztertuko ditugu, Asierren lan artistiskoa iturri izanik.
	26	Klaserik gabeko eguna. Interesa duenarentzat, 26tik 28ra Lorezaintza Jasangarria "esanetik ekintzara" jardunaldiak egingo dira Iruñean sustrai mintegiek antolatuta.
Urria	02	Xomorro. Mikel Agirre Irazoki eta Itsasne Mendiberri Jaurena Baso jangarriak teorikoki eta praktikoki zer diren ulertu. Ikastaroa Añorgako lursail batean burutuko da.
	03	Mikel Baztan Carrera Lorezaintzako landa-lana Donostiako hiri-espazio batean.
	09	Juan Mari Odriozola Braconier Basoa eta zuhaitzak ezaugarritzea hiri-ingurunean eta hiri-inguruan.
	10	Daniel López García Hiriko eta hiri inguruko agroekologia. Nekazaritzako hiri-trantsizio ekologikoaren balio ekologikoak eta sozialak. Fermín G. Blanco Hiri-jardueretan landare-baliabideak aplikatzeko adibide praktikoak.
	16	Nerea Morán Alonso Nekazaritza-ekologiako lurralde-metabolismoa eta hiri-bizitzan dituen ahalmenak. Azterketa-kasuak.
	17	José Manuel Naredo Friso Lurraldeko metabolismo ekonomikoari eta ekosistema biologiko eta urbanistikoan dituen ondorioei buruzko ikusmoldeak.
	23	Ainitze Otamendi Urteaga Hiriko berdeguneen kudeaketa eta biodibertsitatea. Donostiako Udaleko parke eta lorategien proiektuak.



24	Iñigo Segurola Arregui	
	LurGarden-en (Oiartzun) bisita eta landa-lana.	
30	Lorena Escuer Constante	
	Hiri-ingurune naturalean parametro leheneratzaileak ezartzeko aukerak.	
31	Susana Brosed Bolea	
	Lorezaintzaren eta hiri-basoen biodibertsitate-balioei eta erreferentziazko azterketa-kasuei buruzko teoria.	
Azaroa	06-07	Kanpoko bulegoa. Marc Badal Pijuan eta Anne Ibañez Guridi
		Lurraldearen irakurketa kulturalak eta hiri-birnaturalizazioaren problematizazioa.
13	13	Joaquín Araujo Ponciano
		Zuhaitzak eta hiri-basoak maitasunez zaintzea.
14	14	Carles Garcia Paterna
		Lorezaintza birsortzailea aztertzeke kasuak.
		Iñaki Antigüedad Auzmendi
		Lurraldearen funtzioa ur-zikloan. Ibai-arroa funtsa, hiritik harago.
20-21	20-21	Xomorro. Mikel Agirre Irazoki eta Itsasne Mendiberri Jaurena
		Baso sintropikoaren kontzeptualizazioa eta prototipaje fisikoa Donostiako Udaleko Putzueta mintegietan.
27-28	27-28	Ikastaroaren itxiera eta ebaluazioa
		Ikastaroan gertatutakoaren itzulera eta itxiera lan kolektiboa.

Ordutegiak

Ostegunero: 15:30-19:30

Ostiraleko: 9:00-13:00 / 15:00-19:00

*Bisita eta irtenaldiak ostiraletan antolatuko dira.

** Bisita eta irtenaldi egunetan 18:00htan bukatuko da saioa.

*** Klaseen ordutegia matrikulatutakoekin adostutako ordutegira moldagarria da.



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



Irakaslegoa

Lau moduluen helburu eta edukien egituraketa lantaldean garatu da, Jon Begiristain Mitxelena, Ainitze Otamendi Urteaga eta Iñigo Segurola Arregui, eta mikrokredentzial honen zuzendari diren Ula Iruretagoiena Busturia eta Mikel Azkona Uribe-rekin elkarlanean.

Ikastaroaren zuzendaritza

Ula Iruretagoiena Busturia

Mikel Azkona Uribe
Jon Begiristain Mitxelena

Klase guztiak zuzendaritza taldearen jarraipen, ikuskaritza, dinamizazio eta parte hartze aktiboarekin garatuko dira.

I

Matrikula

Prezioa

560€

Sartzeko profila

25-65 urte bitarteko adina

Hautatzeko irizpideak (baldin eta beharrezkoa balitz)

Espediente akademikoa: %10

Aurre-esperientziaren egokitasuna: %80

Interesa / Beharra: %10

Hiri-eremuko aldez aurreko prestakuntza eta/edo esperientzia baloratuko da, hainbat ezagutza-arlotatik: paisajismoa, ekologia, hirigintza, ingurumen-zientziak, arkitektura, biologia, nekazaritza-ingeniaritza, ingeniari zibila, arte ederrak, lorezaintza...



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

